

Peter Greenawayk, Francesc Torresek eta Jac Leirnerrek lantegi bana emango dute "Bilbao Arte eta Kultura" zikloan

Marta Arzak Guggenheim Bilbao Museoko Hezkuntza eta Interpretazio zuzendariordeak eta Josu Rekalde Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) irakasle katedradunak koordinatutako "Artea eta sormena III: Arte garaikideko narratibak" ikastaroak izen handiko gonbidatuak izango ditu bihartik aurrera: diziplina anitzeko Peter Greenaway, Francesc Torres eta Jac Leirner artistak. Europa Press Bilbo EHuko iturriek jakinarazi dutenez, "The Belly of an Architect" (1987) eta "The Cook, The Thiel, His Wife & Her Lover" (1989) bezalako film ospetsuen egilea den Peter Greenaway artista ezagunak 10:30etan emango du "Margotutako ipuinetatik filmatutako ipuinetara" izenburuko hitzaldia. Bestalde, 12:15ean jendaurreko elkarriketa bat izango du Frick Collection-eko Hezkuntza arduradun Rika Burhamekin.

Greenawayk pintura eta zinema uztartzen dituzten hainbat lan egin ditu bere ibilbidean, Rembrandti buruzko "J'Accuse" edota Milango Santa Maria delle Grazie elizan ikusgai dagoen Leonardo da Vinciren "Azken Afaria" lanaren inguruko instalazioa, besteak beste.

Europako zinemagile-artisten prototipoa den Greenawayk etengabe esperimentatzen du zinemaz haragoko mugetan. Bere azken filmak - "Nightwatching (2007)", "Las maletas de Tulse Luper: La historia de Moab" (2003) edo "Las maletas de Tulse Luper: De vaux al mar" (2004)- multimediaren erakusle garbiak dira, eta teknologia berrien dosi ederrez hornituak. Finean, zinea zer izan daitekeen oraindik ez dugula ikusi frogatzeko joera du diziplina anitzeko artista honek, eta horrenbestez, bere erronka hauxe da: "berrasmatzen saiatzea".

Bestalde, bihar arratsaldean, Guggenheim Museoan Jac Leirner artista brasildarra egongo da, eta honek ere lantegi praktiko bat eskainiko du. Sao Paoloko artistaren lan ildoak ikuspegi estetiko eta sozialek bereizten dute, kontsumismoa artean kasu.

Ikastaroak ostiralean izango du jarraipena "Elkarlotzen diren narrazioak" izenburupean, eta eguneko protagonista Francesc Torres artista katalan ospetsua izango da. Instalazioan aitzindari, Torresek (Bartzelona, 1948) gogoeta kritikoa egiten du kultura, politika, memoria eta boterearen adierazpen ezberdinen inguruan. Multimedia instalazioak baliatzen ditu horretarako, azken hamarkadetako artean leku berezia eman diotenak.

Bere garaiarekin konprometitua den Francesc Torresen lana kontzientzia kolektiboarekin erlazionatu izan da. Neurri handi batean, historia, ideologia,

boterea, men egitea, guda, norbanakoa edota kolektibitatea izan dira bere proiektu artistikoaren oinarriak, eta instalazioan -eta baita idatzi kopuru mardul batean ere- aurkitu du bere adierazpide nagusia.

"Artea eta sormena" ikastaro sortaren hirugarren edizio honetan, eta Guggenheim Bilbao Museoak hartzen duen "Pribatutik publikora" erakusketaren harira, narrazioan oinarritutako egitarau bat eskaintzen da. Arte Ederretako zein Artearen Historiako ikasleei, profesionalei eta gai honetan interesa duten guztiei zuzenduta dago eskaintza.

Helburu nagusiak dira sorkuntza prozesuetan sortzen diren aukerak aztertzea eta gogoeta egitea narrazioa hezkuntza eta interpretazio tresna gisa baliatzearen inguruan. Arte historiek, historia sozialekin gertatzen den bezalaxe, bata bestea elikatzen dute. Aitzitik, obra bakoitzak badu gaitasuna gure aurrean bizitza propio batekin aurkezteko.

BESTE IKASTARO BATZUK

Bilbao Arte eta Kultura zikloko "Arteak, Teknologia eta Museoak" sailak beste ikastaro batzuk eskaintzen ditu. Adibidez, bihar eta etzi Bilboko Alde Zaharreko EHUren egoitzan "Ikusle izatetik erabiltzaile izatera: ikusleen mutazioa arte digitalean" egingo da.

Bertan, sorkuntza artistiko digitalaren testuinguru berriaz ariko dira, talde sorkuntza eta sare sozialak, artistaren figuraren desakralizazioa eta, batez ere, prosumer-aren figura (erabiltzaile-ekoizle bihurtu den ikusle kontsumitzailearena) bezalako kontuak aztertzeke.

Mintegi honetan, besteak beste, Karin Ohlenschlaeger-ek (Madril) parte hartuko du. Arte garaikidean eta teknologia berrietan aditua da kritika eta erakusketetako komisario hau, eta baita MediaLabMadrid-en (2002-2006) sortzaile eta zuzendarietako bat ere. Gainera, ekitaldi ugari zuzendu izan ditu, hala nola, Madrilgo Arte, Ciencia y Tecnología Nazioarteko Jaialdia eta Madrilgo Arte Garaikideko Museo Espainolean egindako Video Forum Internacional (1986-88).

Sail honetako azken ikastaroa, "Ondarea museoetara eramateko beste modu batzuk", Sarrikoko Basoko Etxean egingo da, uztailaren 2 eta 3an. Ignacio Diaz Balerdik (EHU) koordinatuta, ez ohikoak diren musealizazio moduak aztertzea du helburu, eta ikerketa edo esperientzia berritzaileak egin dituztenekin lortu nahi du hori.

Teoriko edo akademikoenak diren ekarpenen eta erabateko kutsu praktikoa dutenen arteko oreka bilatzen du, eta, horretarako, Estatuko zenbait unibertsitatetatik etorriko dira hainbat irakasle. Parte-hartzaileek museoan izaera soziala edota hauek errekurtsu turistiko gisa erabiltzeko joera izango dituzte hausnargai, besteak beste, gaur egun bizi-bizi dagoen eztabaida, hain zuzen ere.